



ARANTZAKO UDALA

Nik, Nagore Madariaga Iriarte, Arantzako Udaleko idazkariak,

ZIURTATZEN DUT:

Arantzako Udaleko alkateak, 2024ko urriaren 25ean, osoki idatzirik dagoen honako Ebazpen hau egin zuela:

174/2024 EBAZPENA, URRIAREN 25EKO, ARANTZAKO UDALEKO ALKATEARENA, 2024-2025EKO KANPAINAN ARANTZAKO HERRI LURRETAN BURU BEHARREKO BASO LANEN PROIEKTUKO BASO BERRITZEEN ETA BASO LANAEN ZATIA ZENBATEKO TXIKIKO KONTRATUETARAKO ARAUBIDEZ ESLEITZEKO PROZEDURA ERABILTZEKO AGINTZEN DUENA.

Ikusirik 2024-2025eko kanpainan Arantzako herri lurretan buru beharreko baso lanen proiektuan xedaturikoa.

Ikusirik 2024-2025 kanpainako baso berritzen eta baso lanen obrak lehenbailehen egiteko premia dagoela.

Ikusirik Arantzako Udaleko idazkariak 2024ko urriaren 24an egindako txosten juridikoan xedaturikoa.

Ikusirik Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan xedaturikoa.

EBATZI DUT:

1) 2024-2025eko kanpainan Arantzako herri lurretan buru beharreko baso lanen proiektuko baso berritzeen eta baso lanen zatia zenbateko txikiko kontratuatarako araubidez esleitzeko prozedura erabiltzeko agintzea.

2) Mendiko lanen arloan aritzen diren enpresei baso berritzeen eta baso lanen obra egiteko aurrekontuak aurkezteko gonbidapena bidaltzea, ondorengo zehaztapenekin:

- Aurrekontua: 28.196,59 € (BEZa kanpo).
- Exekuzio epea: lurren garbiketak 2025eko urtarrilerako 31rako egin beharko dira. Nolanahi ere, 2025eko martxoaren 3a da obrarekin bukatzeko azken eguna.
- Proposamen ekonomikoak aurkezteko epea: 10 egun natural.
- Proposamenak aurkezteko helbidea: idazkari@arantza.eus

3) Arantzako Udaleko osoko eginen den hurrengo bilkuran Ebazpen honen berri ematea.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ZIURTAGIRI hau ematen dut, alkatearen oniritziarekin.

Arantzan, 2024ko urriaren 25ean.

ALKATEA,

IDAZKARIA,

Saturnino Larralde Ibarrola

Nagore Madariaga Iriarte